



Baratze baserri eskola

Ulermenerako heziketa (DBH)



#adimenanitzak

#euskara

#ingelera

#multiabentura #naturabizi

#irteerakulturalak

#jolastu

#ikasi

#gozatu



Bazen behin, zaratatik urrundutako itsasbazter eder bat. Toki liluragarri hau Gernikako erreka, hondartza, ibai, mendi, baso, itsasadar eta padurez inguratuta zegoen. Urdaibai izenez ezaguna, Bizkaiko kostaldean kokatutako Biosferako Erreserba zen, herrialde honen harribitxia. Bertan zuhaitz mota ezberdinez betetako basoetan hegazti eta animalia asko bizitzera gelditu ziren. Inguru horretara hurbiltzen zirenak harrিতuta itzultzen ziren. Hala ere, naturak eskainitako altxor honetaz gehien gozatzen zutenak Oxinako haran txikira gerturatutako haur guztiak ziren. Ezkututako Oxinako kubeta horretan Baratze izeneko baserria zegoen. Urtero bertaratutako milaka lagun abentura zoragarriak bizitzera etortzen ziren. Lurra lantzen eta etxe-abereak zaintzen irakasten zizkieten bitartean, jolasean, dantzan, korrika eta kantuka besteekin elkarbizitzen ikasten zuten.

Aurkibidea

Aurkezpena.....	
1. Kokapena.....	
2. Gure helburuak.....	
3. Metodologia.....	
4. Egonaldia Baratzen.....	
4.1. Ordutegia.....	
4.2. Taldeen antolaketa.....	
4.3. Egonaldi motak.....	
4.4. Irakaslearen papera.....	
5. Adimen anitzetako tailerrak.....	
5.1. Adimen logiko-matematikoa: Sukaldea.....	
5.2. Hizkuntzarako adimena: Korta.....	
5.3. Pertsona arteko adimena: Baratza.....	
5.4. Pertsonaren baitako adimena: Loragintza-Onddoak.....	
5.5. Adimen ikus-espaziala: Eskulangintza-Zur lanketa.....	
5.6. Adimen naturalista: Ibilbidea-Erlegintza.....	
5.7. Adimen Kinestesikoa: Zaldia.....	
5.8. Adimen Musikala: Gaubela.....	
6. Irteera kulturalak.....	
7. Multiabentura.....	

8. Baliabideak.....

 8.1. Giza-baliabideak.....

 8.2. Baliabide materialak.....

 8.3. Osasunerako zerbitzuak.....

Aurkezpena

BARATZE Gaitegiz Arteagako Udalean kokaturik dago, "Urdaibaiko Babeslekuaren" barne-barnean. Ingurune honetan Bizkaiko beste tokitan aurkitzen ez diren biotopoak aurki daitezke, eta horiek haurren ikasketarako oinarri hartuko ditugu. Historian eta Kulturen aberatsa den lurraldea dugu hau, arrantzan, abeltzantzan eta nekazaritzan tradizioa du; aipaturiko lanbide hauek eskualde honetako euskarri ekonomikoak izan dira hamarkadetan.

Baratzen, aurrera eramaten ditugun Ingurugiro Heziketa programekin, ez dugu alternatiba edukatiboa izan nahi. G1 izadia eta naturaren arteko erlazio ugari eta zailak ulertzera eramango duen hezkuntza mota bat zabaldu nahi dugu.

Ikasle guztiek behar, interes eta ikasteko era ezberdinak dituzte. Horri erantzuna emateko, egonaldiko ekintzak eta tailerrak diseinatzerako orduan Howard Gardner-en Adimen Anitzen teoria erabiltzen da.

Egonaldian zehar inguru naturala izango da gure tresna garrantzitsua adimen anitzak estimulatzeko. Ikasleek egonaldia bizitzea eta gozatzea dugu helburu nagusia. Horretarako, proposatutako ekintzetan haiek dira protagonista bakarrak, haien autonomia eta ikaskuntza esanguratsua bultzatuz.

BARATZE Baserri-Eskolako egonaldiak, ikasleentzat gizaki eta ingurune naturalaren arteko bilgunea izatera heldu nahi duen hezkuntza saioa suposatzen du. Ikasleak inguru herritar eta natural ezin hobe baten barneratzen dira, Naturan suertatzen diren fenomenoetatik eta ingurune eta gizakien arteko erlazioetatik ohartzen dira, datuak batu eta aztertzen dituzte eta horren ondorioz konklusioak lortzera heltzen dira. Hau guztia tailer ezberdinen bidez lortzen da, jakinmina, zaletasuna, ingurugiroko zainketa aktiboa, zehaztasun zientifikoarenganako grina, talde lana, behaketa, ideien

argumentazioa eta ondorioen eztabaida sustatuz.

Guzti hau kontuan hartutik eta igarotako 25 urte baino gehiago hauetan egondako 150.000 ikasle baino gehiagorekin lortutako esperientzian funtzaturik eta oinarriturik, ikasleentzat Baratzeke egonaldia inoiz ahaztuko ez duten abentura bihurtuko dela esan dezakegu inolako beldurrik gabe eta honekin batera hezkuntza lanerako laguntza estimagaitza izan daitekela ere.

1. Kokapena

Baratze Baserri-Eskola Oxina baserrian aurkitzen da, Bizkaian, Gautegiz Arteagan dagoen Basetxetas auzunean eta "Urdaibaiko Babeslekua"-ren barnean.

Gure hezkuntza-esperientzia aurrera eraman ahal izateko inguru ezin hobean kokatzen gara. Oso hurbil ditugu itsasadarra, hondartzak eta itsaspadurak, zuhaitz mota ezberdinez osaturiko basoak, mendixkak, flora eta fauna ugaria ...



1. irudia: Baratze Baserri-Eskolara heltzeko mapa

2. Gure helburuak

Gure helburu nagusiak hauek direla esan genezake:

1. Umeen adimen eta zentzumenak estimulatzea.
2. Umeen behar, interes, ezagutza eta adimen guztiei erantzuna ematea.
3. Elkarbizitzarako balioak sustatzea.
4. Naturarekiko errespetua, gozamina eta maitasuna bultzatzea.
5. Euskara/ingelera komunikazio-tresna gisa erabiltzea.

Bestalde, dekretuko gaitasunak eta helburuak kontuan izanik, haurrek ondorengo helburuak lortzea espero dugu:

1. Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.
2. Norberaren gaitasun-mailarekin eta interesekin estu lotuta atzerritar hizkuntzan (ingelera) sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.
3. Matematikako ezagutza aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta beste ezagutza-arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.
4. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzea, haietan gertatzen diren interakzioak azalduz, eta ekosistemen oreka eta hura aldatzen duten faktoreak deskribatuz, horren bidez natura balioesteko eta kudeatzeko nahiz hartaz gozatzeko, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak

ikuspegi kritikoz aztertzeke, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeke.

5. Ezagutza zientifikoaz baliatzea, naturako fenomenoak nahiz gizakiaren jarduerak eragindakook interpretatzeko, eta zientziaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzeke, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea.
6. Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak erabiltzea, eta sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, berdinen arteko jardueretan, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko.
7. Emozioak, sentimenduak, bizipenak, ideiak, eta natura nahiz kultura-inguruneko espazio, objektu eta elementuak adierazteko balio duten obra artistiko-estetikoak sortzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoa eta autokon antzan aurrera egitea.
8. Musikak norberaren ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko dituen aukera ugarietz jabetzea, eta mota desberdinetako musika-adierazpenak errespetatzea eta balioestea, artea eta kultura ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen duten aldetik.
9. Jarduera siko eta kirol-jarduera osasungarria zehazten duten alderdi guztiak identi katzea eta aztertzea, modu kontzientean balioesteko ongizatea lortzeko dakartzan onurak, alderdi guz- tietan, eta gizarteak osasunari, jarduera sikoari, kirol-jarduerari, gorputzaren tratamenduari eta gorputz-irudiari buruz duen ikuspegia jarrera kritikoz aztertzea.
10. Gorputza ezagutzea eta ulertzea, alderdi biologikoan, sortzailean, komunikatiboan eta emozionalean, banaka nahiz taldean banakako eta taldeko jolas-jarduerak aztertuz eta esperimendatuz, musika-euskarria

erabiliz zein ez, pertsonaren konpetentzia sozioemozionala eta garapen integrala bideratze aldera.

3. Metodologia

Guztiak ez gara berdinak, desberdin pentsatzen eta ikasten dugu. Hori da, laburbilduz, Howard Gardner-ek esaten duena bere Adimen Anitzen teorian.

Duela gutxira arte pentsatzen zen gizakiak adimen bakarra zuela eta hau adimen-koizientearen bidez neurtzen zela. Orain badakigu hori EZ dela horrela. Ume bakoitza ezberdina da eta horregatik irakaskuntza pertsonalizatua eskaini behar diegu.

Bakoitzak ikasteko era bat dauka, eta hezitzaileon funtzioa gure haurrek erabiltzen dutenaz jabetzea izan behar du, hau da, haien grinak aurkitzea. Irakasleak ez gara jakituria guztiaren jabe, izan ere, gure lana haurrak haien ikasketa prozesuan gidatzea da. Prozesu horretan umeei lagundu behar zaie haien adimen nagusiak antzematen eta horiek erabiltzen irakatsitako jakintzak hobeto bereganatzeko.

Argi dago guztiok gauza asko ikasi behar ditugula, baina ez daukagu zertan guztiok berdin egin beharrik. Horregatik irakasgai bat irakasteko hamaika era ezberdin egon daiteke.

Howard Gardner-en arabera 8 adimen ezberdin daude:

- Adimen ikus-espaziala
- Adimen musikala.
- Hizkuntzarako adimena.
- Pertsonaren baitako adimena.
- Gorputz adimena.
- Pertsona arteko adimena.
- Adimen logiko-matematikoa.
- Adimen naturalista.

Gure gaitasunek edo adimen anitzek garapen ezberdinak izan ditzakete, baina horrek ez du gure garapen pertsonala oztopatuko. Hala ere, oso garrantzitsua da gaitasun guztiak estimulatzea eta garatzen saiatzea. Hori da gure helburua Baratzen: haurren adimen guztiak estimulatzea horiek garatu ditzaten eta beraien potentzialtasunetaz jabe daitezen. Hau da, jolasa eta ezaguera batu nahi ditugu.

Historian zehar ikuspegi eta metodologia ezberdinak agertu dira. Guk bakoitzeko onena hartzen saiatzen gara hurrei irakaskuntza integral eta pertsonalizatua emateko. Gure ustez, umeak ez du bakarrik eskolan edo etxean ikasten, estimulua egokia baldin bada haurrak edozein lekutan ikas dezake.

Gure jardutearen oinarriak hurrengoak dira:

- Ikaskuntza esanguratsua.
- Haurren protagonismoa: aktiboa, bere ezaguera eraikitzen du eta.
- Irakaskuntza pertsonalizatua, umearen jakin-minen arabera.
- Lan kooperatiboa.
- Motibazioaren sustapena.
- Ikasteko gozamenaren bilaketa.
- Sormena eta esperimendazioaren garapena.
- Behaketaren garrantzia.
- Hurrei egokitutako lekua.
- Autonomiaren sustapena.
- Besteekiko eta naturarekiko errespetua.

4. Egonaldia Baratzen

Baratzeko egonaldiak gure lurraldeko ikasleentzako bilgunea izan nahi duen hezkuntza saioa suposatzen du. Bertan ikeasleek inguru herritar eta natural ezin hobe batean barneratzeko aukera dute, ingurunea ezagutzuz, errespetatuz eta zainduz.

Ekintza printzipioak benetako esanahia har dezan, Baserri-Eskola girorik onena bilakatzen da, oinarri zientifikoak beti kontutan harturik, esperimendazio zuzena egiteko aukera ematen du eta.

4.1. Ordutegia

8.30	Denok gora!
9.00 - 9.30	Gosaria
9.30 - 11.00	1. tailerra
11.00 - 11.30	Astiaaldia
11.30 - 13.00	2. tailerra
13.00 - 14.00	Bazkaria
14.00 - 15.00	Astiaaldia
15.00 - 16.30	3. tailerra
16.30 - 17.00	Askaria
17.00 - 18.30	4. tailerra
18.30 - 19.00	Astiaaldia
19.00 - 20.00	Afaria
20.00 - 22.00	Gaubela
22.00 - 22.30	Kola-kao beroa
22.30	Ohera!

4.2. Antolaketa

Ikasleak Baratzerara heldu bezain laister, bi batzar egiten ditugu: bat ikasleekin eta beste bat irakasleekin.

Ikasleekin izaten dugun batzarrean ondorengoak egiten dira:

- Nortzuk garen, zer egingo dugun eta arauen bat azaltzen diegu.

Lan taldeak egiten ditugu.

4.3. Egonaldi motak

Baratzerara etorri nahi baduzue zenbait aukeren artean aukeratu ahal izango duzue.

HIZKUNTZA:

1. Euskaraz edo erdaraz.
2. Euskaraz eta ingeleraz.
3. Erdaraz eta ingeleraz.

EGONALDIAREN IRAUPENA:

		Sarrera	Irteera	Tailerrak
BI EGUNEKO EGONALDIA		10.30etan	15.00etan	5 tailer (ordu t'erdikoak)
ASTE ERDIKO EGONALDIA	Astelehena-asteazkena	Astelehena 10.30etan	Asteazkena 14.30etan	8 tailer (ordu t'erdikoak)
	Asteazkena-ostirala	Asteazkena 15.00etan	Ostirala 17.00etan	8 tailer (ordu t'erdikoak)
LAU EGUNEKO EGONALDIA		10.30etan	15.etan	12 tailer (ordu t'erdikoak)
ASTEKO EGONALDIA		Astelehena 10.30etan	Ostirala 15.00etan	16 tailer (ordu t'erdikoak)

EGONALDIAREN ANTOLAKETA:

Oraingoan, HHn eta LHn ez bezala, adimen ikus-espazialari ordu eta erdiko bi saio emango dizkiogu. Izan ere, aurreko etapatan hizkuntz adimena garatzeari ematen genion garrantzia, beste adimen honi eman nahi diogu. Honek, haien arrazonamenduaren eta kognizioaren garapenean daukan ondorio hain positiboengatik.

Egonaldia programatzeko orduan klimatologia kontutan izan behar dugu tailerrak modu batean edo bestean bideratzeko. Irakaslegoak nahi izanez gero eskakizunen bat egin dezake Baratzen egindako ekintzak eskolakoekin erlazionatzeko edota egokitzeko.

Baserri eskolako ekintza eta tailer ezberdinak era egokian egin ahal izateko ikasleak talde txikietan banatzen dira.

	Tailerrak	Gauetan
BI EGUNEKO EGONALDIA	5 tailer (ordu t'erdikoak)	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntz adimena (korta) 2. Adimen logiko-matematikoa (sukaldea) 3. Adimen kinestesikoa (zaldia) 4. Adimen ikus-espaziala (eskulangintza) 5. Pertsona arteko adimena (baratza) Adimen musikala (gaubela)
ASTE ERDIKO EGONALDIA	8 tailer (ordu t'erdikoak)	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntz adimena (korta) 2. Adimen logiko-matematikoa (sukaldea) 3. Adimen kinestesikoa (zaldia) 4. Adimen ikus-espaziala 5. (zur lanketa) 2 saio 6. Adimen naturalista (Erlegintza edo ibilbidea) 7. Pertsonaren baitako adimena (onddoak) 8. Pertsona arteko adimena (baratza) Adimen musikala (gaubela)
LAU EGUNEKO EGONALDIA	12 tailer (ordu t'erdikoak)	Baserriko tailerrak egiteaz gain aukera izango dute Baratzetik ateratzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Irteera kulturalak - Multiabentura Adimen musikala (gaubela)
ASTEKO EGONALDIA	16 tailer (ordu t'erdikoak)	Baserriko tailerrak egiteaz gain aukera izango dute Baratzetik ateratzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Irteera kulturalak - Multiabentura Adimen musikala (gaubela)

Baratzetik kanpo ekintzaren bat egin nahi bada, aurretiaz abisatu beharko da lekua erreserbatzeko (museoak, ur ekintzak...),baita prezioak aldatu daitezke.

4.4. Irakaslearen papera

Baratzen egingo den egonaldia eskolako programazioarekin ertsirik lotuta dagoen esperientzia bat izan dadin nahi dugu.

Irakasleen funtzio nagusia haurren astialdia eta gaueko zainketa da, hala ere, beti edukiko dute gure laguntza.

Haurrekin etortzen diren irakasleek ondorengo momentuetan egon behar dute haurrekin:

JANTOKIA (Gosaria- bazkaria- afaria)

GOIZEKO ASTIALDIA (11:00 – 11:30)

ASKARIAREN ASTIALDIA (16:30-17:00)


Baratzeko irakaslegoak eguerdiko eta afal osteko astialdia zainduko du, ikasleekin datozen irakasleek lasai jan dezaten irakasleen gelan.

Une guztietan, ager daitekeen edozein arazo bati aurre egiteko, Baserri-Eskolako arduradun bat egongo da., hala ere, gabez irakasleak izango dira haurren azken arduradunak.

Ekintzak burutzen diren bitartean, irakasleek edozein momentuan, bideoa grabatzeko, argazkiak ateratzeko edo tailerrak nola burutzen diren ikusteko aukera daukate.

5. Adimen anitzetako tailerrak

Adimen anitzen bidez, umeei ikaskuntza esanguratsua eta ulermenerako heziketa eskaini nahi diegu.



Baratzen, berez, lau adimen lantzen ditugu:

- Pertsonaren baitako adimena: haurren autonomia guztiz bultzatzen da (norberaren gorputza zaindu, garbitu, jantzi, elikatu; norberaren gauzak zaindu eta ordenatu).
- Pertsona arteko adimena: besteekin eta naturarekin elkarbizitzeari garrantzi handia ematen diegu (elkar lagundu, lan kooperatiboa, natura zaindu...).
- Hizkuntzarako adimena: hizkuntza, euskara edota ingelera, komunikatzeko tresna gisa erabiliko dugu.
- Adimen naturalista: Baratze kokatuta dagoen inguru naturala erabiliko da beste adimen guztiak lantzeko, izan ere, umeen emozioa eta haien arreta lortzeko tresna bikaina da. Gainera, zentzumenak estimulatzeko baliabidea ere bada.

Tailer bakoitzean adimen bat landuko dugu nagusiki, horrek ez du esan nahi tailer berean adimen gehiago estimulatuko ez denik. Egonaldian zehar haurrek egin ditzaketen ekintzak ondorengoak dira:

5.1. Adimen logiko-matematika

Sukaldea

Sukaldean adimen logiko-matematika landuko dugu esperimentazioa eta jokuen bidez. Tailerra esperimendu bat izango da laborategian: elikagai gordinak elikagai jangarri bihurtuko ditugu.

Adimen hau lantzeko, pentsamendu deduktibo eta induktiboa landuko dugu, baita konzeptu matematikoak:

- neurtze sistema hamartarra,
- kalkuloa,
- geometría,
- bolumenak eta dentsitatea,
- nahazketa eta disoluzioa
- probabilitatea

Egingo duten elikagaia izan daiteke: ogia, bizkotxoak, madalenak, gailetak, e.a.; hauek, gure bidea izango dira, konzeptu matematiko ezberdinak aplikatzeko.

5.2. Hizkuntzarako adimena

Korta

Erabiliko dugun tresna hizkuntz adimena garatzeko animalia-aren tailerra izango da. Alde batetik aukera ona da animaliei buruzko esakerak, esamoldeak eta lexiko berria garatzeko eta bestetik, animaliarekin egoterakoan emozio handia sortzen zaie eta gogoekin beraien esperientziak, kontaerak eta hainbat galderak entzuteko aukera paregabekoa daukagu.

Hizkuntz adimena garatzeko burutuko ditugun ekintzak, besteak beste, ondorengoak izango dira:

- Animalia baten istorioren bat irakurri eta taldeka besteen aurrean istorio hori adierazi
- Baserriko animaliei buruzko hitz eta kontzeptu berriak ikasi
- Animaliarekin edo haiek egiten dituzten soinuekin lotura duen abestiren bat abestu eta gainontzekoei erakutsi.
- Ikusiko dituzten animaliarekin soinua imitatu eta hau, haiek komunikatzeko eta hitz egiteko era dela ulertu.
- Denon artean istorio bat asmatu. Talde bat esaldi batekin hasten da eta gero hurrengoak jarraitzen dute.
- Igarkizun baten bidez zein animalia ikusiko dugun asmatu
- Esaeren bidez animalia-aren bizimodua eta portaera ikasi.
- Aho korapiloari jolastu: "Akerrak adarrak okerrak ditu", ea...
- Umeen adinaren arabera eta beraien ezagutzaz abiatuz animaliak klasifikatu, beraien jaotzaren arabera edo beraien elikagaiaren arabera.
- Animaliak ezagutu ostean ahozko aurkezpen bat prestatu eta besteei irakurri.
- Bakoitzak gehien guztatu zaion animalia aukeratu eta hitz edo lerro gutxitan azaldu beraien aukeraren zergaitia.

5.3. Pertsona arteko adimena

Baratza

Landare baten zikloa ikusteko aukera izango dute: nola ereiten, jaiotzen eta birlandatzen den. Baita landareen atalak ere: sustraiak, zurtoina, hostoak, loreak eta fruituak. Haurrek ortuko barazkiak eta frutak ezagutuko dituzte eta ortuan lan egingo dute dagokion tresneriarekin.

Pertsona arteko adimenari dagokionez, tailer honetan taldean lan egingo dute bereziki. Garrantzitsua izango da taldekide eta talde guztien parte-hartzea ekintza aurrera eramateko, lankidetzaren eta laguntasuna sustatuz.

5.4. Pertsonaren baitako adimena

Loragintza

Loreen negutegian, ikasleek lore eta landareen beharizanak ikasiko dituzte. Gainera, haziak ereingo dituzte, lurra landu, landareak birlandatu, lorategia garbituko dute. Urtaroaren arabera ekintzak aldatu egingo dira.

Tailer honetan, emozioei buruz hitz egingo dugu, loreetatik abiatuta umeen sentimenduetara ailegatuko gara. Gainera, erlaxazio ariketak egiteko aukera izango dute.

Onddoak

Onddoekin pertsonaren baitako adimena landuko dugu. Adimen hau onddoak aztertzen landuko dugu. Ikasleek onddoen bizimodua eta beharizanak ikasiko dituzte.

Tailer honetan, emozioei buruz hitz egingo dugu, onddoetatik abiatuta umeen sentimenduetara ailegatuko gara. Gainera, erlaxazio ariketak egiteko aukera izango dute.

5.5. Adimen ikus-espaziala

Eskulangintza

Arte tailer bat da. Hurrek haien irudimena eta sormena erabilia zerbait sortuko dute .Irakasleak ekoizpenaren gaia eman arren, umeak askeak izango dira erabakitzeke nola egingo dituzten eta batzutan erabilitako materialak ere.

Eskulangintzan irudimen aktiboa estimulatu nahi dugu. Egonaldian ikusi eta esperimendatutakoa ekoizpen artistiko batean isladatzeko eskatuko zaie. Gainera, koloreak, testurak... ikasitako kontzeptuekin erlazionatu ditzakete, irudi mentalak egin...

Zur lanketa

Ekintza edo tailer hauetan zurlanketaren bidez saiatuko gara adimen ikus-espaziala lantzen. Arte tailer bat da eta kasu honetan hiru dimentsioetako lana lortuko dute: Egur zati batean euskal herriko lore bat lortuko dute.

5.6. Adimen naturalista

Ibilbidea

Baratze inguruko bide eta basotik ibilbide bat egitean datza. Tailer honetan natura aztertzeo aukera izango dute, gauza txikienei ere arreta jarritz.

Basotik paseatzen, pinudi eta bertoko basoaren ezberdintasunak, sendabelarrak, biodibertsitatea eta aniztasuna, erreka eta putzuen ekosistema, landareen klasifikazioa eta txorien bizimoduaz konturatuko dira. Gainera Urdaibai erretserba zer den aztertuko dute eta baita ere orientazioaz zeozer ikasiko dute.

Erlegintza

Erlauntzetan, erleen mundua batez ere aztertuko dute, eta gizaki eta naturaren arteko oreka nolakoa izan daiteke, gizakia arduratsua baldin bada. Tailer honetan naturan dagoen konpetentzia eta lankidetzaz asko ikasi dezakete.

5.7. Adimen kinestesikoa

Zaldia

Egonaldian, haurrek zaldian ibili ahal izango dute. Animalia ezagutzeaz gain, jaten eman, orraztu, ikutu eta bere gainera igoko dira.

Zaldiz ibiltzean, gaitasun motoreak jokoan jartzen ditugu: arnasketa eta gorputzaren autokontrola, gorputz jarrera, oreka...

5.8. Adimen musikala

Gaubela

Afaldu ostean eta ohera joan baino lehen, ekintza ezberdinak egingo dira. Honetan hiru adimen landuko dira (musikala, kinestesikoa eta interperersonala) baina oraingoan garrantzi handiagoa musikalarari emango diogu.

Gaubelan egingo ditugun ekintzak ondorengoak izango dira: abesti bat sortu, abesti bat interpretatu abestu gabe, diskotekan abestu eta dantzatu...

Baratzen, izatez, musika daukagula uste dugu: basoko eta naturako soinuak, animalien soinuak, euria eta haizearen soinua... Eta horiek entzuteko eta gozatzeko aukera izango dute tailer eta ekintza guztietan.

6. Irteera kulturalak

Irteera hauek lau eta bost egunetako egonaldietan antolatzen dira. Irakasleek aurretiaz aukeratu beharko dituzte egin nahi dituzten irteerak.

Egonaldia azkoz aberatsagoa izateko, gure ingurunea, gizarte, kultura eta Historia era sakonago batean ezagutzeko irteera kultural hauek pentsatu ditugu:

ADIMEN NATURALISTA

Ingurune, gizartea eta Historia

- **Santimamiñeko kobak:** gure antzinekoen bizimodu ikaragarria ezagutzeko, beraien arteko antolaketa eta bereziki, ingurune naturalarekin zituzten harremanak, beti errespeto handiz eta oreka naturala mantenduz. Gainera, Karst-gunean nola eratzen diren kobazuloak aztertuko dugu.
- **Bird center:** padura ikusteko eta beraien bidai luzeetan atsedena hartzen dituzten hegaztiak behatzeko ikasteko leku zoragarria.
- **Gernikako Batzar-etxea:** Bizkaiko erakunde ofizial gorenaren egoitza eta arbola mitikoaren ondoan eraikia.
- **Gernikako Bakearen museoa:** museo erakargarri eta dinamikoa, sentitzeko eta bizitzeko.
- **Euskal Herria museoa** (Gernika): Euskal Herriaren esanahi historiko, politiko eta kulturala ulertzen lagunduko gaituen museoa.

ADIMEN IKUS ESPAZIALA

Artea

- **Guggenheim Bilbao museoa:** museo ikaragarri hau ikusteko aukera ezin hobea.

7. Multiabentura

Ekintza hauek lau eta bost egunetako egonaldietan antolatzen dira. Irakasleek aurretiaz aukeratu beharko dituzte egin nahi dituzten irteerak.

Urdaibaiko Biosfera erreserban gaude eta gure inguruan dauden errekurtoak aprobetxatuz, beste ekintza batzuk antolatzen ditugu egonaldia askoz ere aberatsagoa egiteko nahian. Kasu honetan adimen kinestesikoa garatuko dugu.

GORPUTZ ADIMENA-ADIMEN KINESTESIKOA

- **Kirolak Naturan:** gure kostaldea baldintza gaindiezinak eskaintzen ditu abentura kirolak praktikatzeko. Horrexegatik baratzeko egonaldia aprobetxatuz. "UR Urbaibai"-ko monitoreak kontratatzeke aukera eskaintzen dizuegu. Haien Laida hondartzan, edozein motatako abentura kirola eskaintzen dute: Big Sup, Stand Up Padel, Surf, arraunketa, kanoak, eskalada, tirolina, e.a....
- **Padel Kanpusa:** "Padel Bizkaia"-ren jartzapenetan, motrizitatearen garapena (koordinazio orokorra eta segmentarioa, indarra eta erreakzio abiadura esate baterako) lantzeko balio duen kirol hau praktikatu ahal izango dute. Baina motrizitatearen garapenean dituen onurez aparte, kirol hau **Gorputz Hezkuntzako** hainbat balio lantzeko tresna bilakatuko da; ikasleen arteko harremanak, arauak errespetatzea eta lehian aritzea adibidez. Honetaz aparte eta etorkizunerako ohiturak sortzeari begira, honetan biziko duten esperientziarekin bere aisialdi denbora modu osasuntsuan erabiltzen ikasteko aukera izango dute. Gainera, edozein adinean praktikatu ahal den kirola denez gero, kanpus honetan ikasten diren oinarrizko arauak eta trebetasunak ikasita, bai lagunekin zein guraso edo anai-arrebekin praktikatu ahal izango duten kirola da.

8. Baliabideak

8.1. Giza baliabideak

Sukaldea:	pertsona 2
Garbiketa:	pertsona 1
Mantentzea:	pertsona 1
Administrazio eta kudeaketa:	pertsona 1
Pedagogi taldea:	8 pertsona

8.2. Baliabide materialak

Baratze 87.000 m²-ko lursail batean eraikita dago, ondoren aipatzen den eran banatuta aurkitzen delarik:

- 50.000 m²-ko lur soila orturako, aledun zuhaitzetarako eta astialdi eremuetarako erabiltzen da.
- Haritzez eta gaztainondo osaturiko 27.000 m²-ko basoa.
- 10.000 m²-ko mendia.

Ondoren, Baratzen dauden eraikuntzak aipatuko ditugu, jakinik umeen beharrei eta ezaugarriei moldatu ditugula.

BASERRIA:	Dituen lau solairuak, ondoren azalduko moduan daude: Beheko solairua: sukaldea, jantokia, irakasle gela, garbitokia, eta Bulegoa. 1. solairua: Haurren logelak eta komunak, irakasleen logela, erlegintza tailerra eta terraza. 2. solairua: Irakasleen logelak eta komuna, eta haurren logelak eta komunak. Ganbara
-----------	--

- PABILIOIA:** Jantokiarekin bat egiten duen nabe zabal bat da, beraz baserriaren atzekaldeari erantsirik dago. Bertan, aurki daitezke Haur Hezkuntzako tailerra, perretxiko tailerra, jolaslekua, eta komunak.
- KORTA:** Atzealdean kokaturik dagoen 2 solairutako eraikuntza. Hemen abereen ukuilua dago (behia txahalekin, ardiak, ahuntzak, astoa, untxiak, oilotegia, zaldiak, txerriak, antzarrak,, ahateak,...) . Goikaldean abereen pentsuak, lanabesak... biltzen dira. Eskulangintza, sukaldaritza eta zur lanketa tailerrak ere badaude.
- NEGUTEGIAK:** 850 m2-ko negutegi bat barazkien produkzioarako erabiltzen da, eta bestea, 500 m2-koa, berriz, loragintza tailerrerako.
- ZALDIAN IBILTZEKO:** Bi toki ezberdin erabiltzen ditugu, bata estalpean eta bestea ez.

Astialdirako kanpoko eta barruko gune ezberdinak daude: futbol eta saskibaloizelaiak, jolaslekua, terraza, proiektore bat, ordenagailuak, soinu eta megafonia aplikatzaile talde bi,...

WIFI-a ere badago.

8.3. Osasunerako zerbitzuak

Gerta litekeen edozein larrialditarako egoki prestatuak dauden botikin bi dauzkagu.

Behar izanez gero gure pediatrarengana (3 minututara, autoz) joko genuke. Bere ordutegitik kanpo Gernikako ospitalera joango ginateke Larrialdietako zerbitzura eta behar izanez gero, Galdakaoko edo Gurutzetako ospitalera joango ginateke.

Eguneko 24 orduetan kotxeak eta etxeko arduradun bat prest egongo da edozein larrialdiri erantzuna emateko.